

GIL 93 Barrikako hareak



Barrikako hareak azaleratzen den tokiaren ikuspegia.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 24' 52.38 '' N

Long.: 2° 57' 56,18'' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 502.784,57 m

Y: 4.806.851,99 m



Nola iritsi

Bilbotik gatzela (BI-634 errepidetik), hartu Barrika aldera doan BI- 2122 errepidea. Gurutzatu herrigunea, Abaroa urbanizaziora iritsi arte. Aparkatu automobila, eta hasi oinez Muriola hondartzara jaisten den bidetik.



Hareatzaren ebaketa. Jatorri eolikoko metakin geruzatua ikus daiteke.



Barrikako hondartza artifizialaren airetiko ikuspegia.



Barrikako hondartza, hareatzak lehen planoan daudela.

Deskribapena

Barrikako harea Barrikan azaleratzen den abrasio-plataformaren gainean fosiltzen da. Metakin horretako sedimentologia-, mineralogia-, morfologia- eta granulometria-ezaugarriak gaur egungo duna eta hondartzetako sedimentuenekin konparatuz, jakin daiteke zein den harearen jatorria, bai eta zein ingurune sedimentariotan eratu zen ere. Metakin eoliko bat da, itsasoko abrasio-plataforman eratu zena itsas maila baxua zen garai batean. Kuarternarioko metaketa bat da, Holozenoaren aurretikoa. Sedimentatu ondoren, lixibiazioak eta eraso azidoak eragin zioten azken garai horretan.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 117, GIL 132, GIL 49, GIL 44, GIL 96, GIL 35, GIL 127, GIL 90, GIL 118.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 91, GIL 92, GIL 94, GIL 95, GIL 96

Valoración del LIG

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				●
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean ●	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Hareatza hauek eraikuntzarako ustiatzen ziren.				

Bibliografia espezifikoa

- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/37-IV.pdf>
- Martínez de Lahidalga, U., Aranburu A., Yusta, I., Aguirre, M. (2012): *Caracterización sedimentológica del depósito arenoso de Zabaletxe, en la paleo-rasa emergida de Barrika (Bizkaia, España)*. Espainiako Kongresu Geologikoa (Oviedo, 2012). Argitaragabea.